

## AUTOAK ETA BIKTIMAK

Ez dago gaian aditua izan beharrik, egiten dituen autoak euskarririk gabekoak direla ikusteko. Baina ez du inporta. Autoek ongi betetzen dute beren funtzioa. Biktima ugari uzten dituzte bidean. Larriak batzuk, arinak besteak. Sendagarriak batzuk, ondorio gaindiezinekin besteak. Eta horixe dute helburu: biktimak eragitea. Jakina, ez naiz automobilerik ari, ministro izan nahi omen zuen epaileak 1998ko udatik aurrera sinatu dituen auto ezagun batzuek baizik.

Auto horiek ezaugarri komun bat dute: ez dute delitu frogarri bat bera ere jasotzen. Jasotzen dutena epailearen teoria bat da: ETArekin eta garaian garaiko jopuntutzat hautatzen duen elkarte, enpresa, komunikabide edo dena delakoaren arteko harreman meronomikoa baieztatzen duen teoria. Horrekin nahikoa du komunikabideak eta enpresak itxi, elkarteak legez kanpo utzi eta pertsonak kartzelaratzeko. Ez da sekula azaltzen zein den, legearen arabera, bakoitzari leporatzen zaion delitua eta zein frogak. Nahikoa da teoria oro-esplikatiBoan azaltzen den azpimultzo horietako bateko kide izatea kartzelan bukatzeko. Super-epailearen autoen biktimen zerrenda luzea da, oso luzea. Zenbat dira azken lau urteotan epailearen aurretik deklaratzera pasa direnak? Zenbat atxilotuak? Zenbat kartzelaratuak? Zenbat bertan jarraitzen dutenak? Zenbat dira baldintzapeko askatasunean daudenak? Zenbat euro ordaindu behar izan da askatasun horren truke? Zenbat dira astero epailearen aurrean pasa behar dutenak? Zenbat espainiar estatuko mugak pasatzeko baimenik gabeak? Zenbat epaiketan akusatuen aulkian eseri beharko dutenak?

Horiekin batera, euskal herritarren informazio eskubidea, iritzi askatasuna, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna, hots, gizarte demokratikoetako oinarritzeko eskubide zibilak dira izar bihurtu omen den epailearen autoen biktima larrienak. Horiek guztiak akusatu gisa kabitze moduko aulki eta gelarik topatzea ez du erraza izango Espainiako «justiziak». Nonahi ere, nolahi ere, defenditu egingo ditugu. Defenditu egingo gara.